

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Frenetikodrome.**  
Governors.  
Oihuka.  
Iraupena: 48'14".  
14 euro.

## Estiloetatik at, doinuaren eta irmotasunaren bila

SORGUNEA Arrasaten duen Governors taldeak bigarren ikasgaia dakarkigu beso azpian. Brutal Melody, Ekon eta Fjord-en sortzaile Juan Sangrek egonkortu du Governors eta oraingoan ere doinu borobilak, ñabardura ugari eta erabat osatuta dauden kantuak aurkeztu dizkigu. Aurreko lana baino melodikoa goa da eta ekoizpena garbiagoa, baina era berean oso indartsua da eta estiloetan inoiz mugatzen ez dena. Hard-rocka, stonerra, high-energy bizi-bizia,

pop-rockaren aldarrikapena, rock-metal erasotzailea, elektro dantzagarria, funky zein punk-rocka, guztiak daude ordezkaturak, eta guztietan emaitza mailakoa da. Hitzei dagokienez, Fredi Paiak, Eider Zumaldek eta Juan Sangrek berak sentimenduz eta amorrutaz idatzitakoak dira. Gainera, opari gisa, 10. Hatortxu Rock-eko *Kristal kolpatuak*en bideoklipa jaso dute.

[www.myspace.com/governorszone](http://www.myspace.com/governorszone)

### Juan Sangre - Governors

## «Ez nau estilo bakarrak asetzen eta doinuak uzten didan biderantz joaten naiz»

**Frenetikodrome.** Hain frenetikoa izan da disko hau egitea? Egunerokotasuna ere halakoa da zuentzat?

Bai. Gauza ugari gertatu dira disko honekin batera: Governors eta Brutal Melody taldeak aldi berean jotzen aritu ginen; gero Ekonen bira etorri zen eta Governorsekin kontzertuak egiten genituen bitartean disko honetako abestiak konposatu nituen. Zoratzekoa izan da prozesua. Izenburuan estresa eta ezinegon irudikatu nahi nituen eta Parisen Sexodrome izeneko aretoa ikusi nuen, bururatu zitzaidan behin-betiko izena. Egia esan behar badut, saltsa askotan egotea gustatzen zait, ez dakit geldid egoten.

**Beste behin, ahotsarekin urrunago jo duzu eta oraingoan ere bestelako erregistroak lortu dituzu. Urrunago heltzeko premia daukazu?**

Ez. Ekonen abesten hasi nintzen edo Fjord sortzean banuen

zerbait erakusteko beharra, baina orain ez. Ateratako melodiek eraman naute erregistro horietara. Gaur egun eroso nago abesten eta badakit nondik tiratu dezakedan.



**Ibiltaria** kanta harrituta utzi nau: pop-rock pieza borobila da.

Hala irten zen; ez nindoan gauza zehatz baten bila. Hala ere, bai metalezaleei eta rockzaleei, guztiei,

asko gustatu zaie. Estilo bakarrak ez nau asetzen eta doinuak uzten didan biderantz joaten naiz. Estiloak fusionatzen dituzten taldeek betetzen naute gehien.

**Zer izan da zuentzat *Kristal kolpatuak* kanta konposatu eta grabatu izana?**

Poztasun handia zentzu askotan: Hatortxukoek kantua egiteko gu aukeratu izana eta Hatortxuk duen helburua bera. Gainera, kanta horri esker askoz jende gehiagok jarri du arreta gure musikan eta hori nabaritzen dugu kontzertuetan.

**Zer unetan dago orain taldea?**

Oso une onean gaude, diskoaz disfrutatzen gabiltza. Izan ere, egindako lan guztiaren ordaina kontzertuak dira: jendearekin egotea, erantzuna ikustea... eta orain horretan ari gara. ■